



MIRABAL AHIZPAK

LAS HERMANAS MIRABAL

Azaroaren 25a, Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatze Nazioarteko Eguna, 1960tik dator. Urte hartan, **Patria, Minerva eta María Teresa Mirabal ahizpak**, behin baino gehiagotan espetxeratu, bortxatu eta torturatu ondoren, **bortizki erail** zituzten Dominikar Errepublikan, Rafael Leónidas Trujillo diktadorearen gobernuaren aurkako aktibismo politikoagatik.

Mirabal ahizpak "**Tximeletak**" ezizenez ezagunak ziren, Minervak tirania trujillistaren aurkako ezkutuko jardura politikoetan erabilitako izena izateagatik, eta Latinoamerikako emakumeen aurkako indarkeriaren adierazle nagusi bihurtu ziren.

1981ean Bogotan (Kolonbia) ospatu zen Latinoamerikako eta Karibeko Lehen Topaketa Feministan, azaroaren 25a emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko nazioarteko egun gisa markatzea erabaki zen, **Mirabal ahizpen hilketa gogoratzeko**.

1999. urtean, Dominikar Errepublikak, beste lauorgeri herrialderen babesarekin, **Nazio Batuen Batzar Nagusian** proposatu zuen **azaroaren 25a Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatze Nazioarteko Eguna izendatzea**. Proposamen hori abenduaren hamazazpiko 54/134 Ebazpenaren bidez onartu zen, **Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeari buruzko Adierazpenarekin**, eta honela definitu zen "emakumeen aurkako indarkeria":

"Generoan oinarritutako indarkeria-ekintza oro, emaitza gisa kalte fisikoa, sexuala edo psikologikoa izan dezakeena, baita mehatxuak, hertsapena edo askatasuna arbitrarioki debekatzea ere, izan bizitza publikoan zein pribatuan."

Batzar horretan onartu zen beharrezkoa zela eskubideen adierazpen bat egitea eta hori aplikatzea, **emakumeen aurkako indarkeria modu guztietan desgerrarazteko**, eta estatuek eta, oro har, nazioarteko komunitateak **konpromisoa** hartu behar zutela helburu hori lortzeko.

El origen del 25 de noviembre, del Día Internacional de la Eliminación de la Violencia contra la Mujeres, se remonta a 1960, año en el que las **hermanas Patria, Minerva y María Teresa Mirabal**, tras ser encarceladas, violadas y torturadas en varias ocasiones, fueron **brutalmente asesinadas** en República Dominicana por su activismo político en oposición al gobierno del dictador Rafael Leónidas Trujillo.

Las hermanas Mirabal, apodadas "**Las Mariposas**" por ser éste el nombre utilizado por Minerva en sus actividades políticas clandestinas en contra de la tiranía trujillista, se convirtieron en el máximo exponente de la violencia contra las mujeres en América Latina.

En el Primer Encuentro Feminista Latinoamericano y del Caribe, celebrado el año 1981 en Bogotá (Colombia), se decidió, **en recuerdo del asesinato de las hermanas Mirabal**, marcar el día de su muerte el 25 de noviembre, como el Día Internacional de NO Violencia contra las mujeres.

En el año 1999, la República Dominicana con el apoyo de otros ochenta países, propuso en la **Asamblea General de las Naciones Unidas** que el **25 de noviembre fuera declarado como Día Internacional de la Eliminación de la Violencia Contra la Mujer**, propuesta que se aprobaría mediante la resolución 54/134 del diecisiete de diciembre, con la **Declaración sobre la Eliminación de la Violencia contra la Mujer**, en la que se definiría la "violencia contra la mujer" como:

"Todo acto de violencia basado en el género que tiene como resultado posible o real un daño físico, sexual o psicológico, incluidas las amenazas, la coerción o la prohibición arbitraria de la libertad, ya sea que ocurra en la vida pública o en la vida privada."

En esta asamblea se reconoció que era necesaria una declaración de derechos y su aplicación para asegurar la **eliminación de la violencia contra las mujeres en todas sus formas**, y la necesidad del por parte de los Estados y la comunidad internacional en general, para lograr tal fin.

AZAROAREN 25A

25 DE NOVIEMBRE



Zizur Nagusiko Udala
Ayuntamiento de Zizur Mayor

